

Windows Phone 8 Mondragon Unibertsitatean

2012/12/21

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak eta ETIC (Microsoft-ek duen Sistema Txertatutean Berrikuntza Zentrua) DevCamp2012 izeneko kanpamentua antolatu dute Windows Phone 8 teknologia lantzeko Informatika Ingeniaritzan Gradua, Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritzan Gradua, Sistema Txertatuetan Masterra ikasketak egiten ari diren ikasleentzat.

Abenduaren 14an ETIC-eko adituak teknologia hauen berrikuntzak aurkeztu dituzte eta abenduaren 17an bigarren saio batetan tailer praktikoa antolatu da bertaratutakoak teknologia hauek praktikatu eta sortutako aplikazioak *Store* edo dendan plazaratzeko.



Konferentzia Windows Phone 8
Arrasate